



1. maila | Entzumena | 1E9 | A eredua

Deiturak:

Izena:

NA:

Ahozko azterketak bi zati izango ditu:

- Entzumena
- Mintzamena

Entzumenaren ondoren, mintzameneko azterketa izango duzu.

Entzumena amaitu ondoren, **10 minutu** izango dituzu mintzameneko proba prestatzeko.

	ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposaturiko denbora
Ahozko azterketa	Entzumena	10	20	25 min inguru
	Mintzamena	15	30	15 min inguru
	Guztira	25	50	

Azterketa deialdia: 2011ko 1. deialdia





Entzumena

I. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko Gertukoak berri-saioa entzungo duzu. Guztira 6 berri entzungo dituzu. Berri bakoitza irudi batekin lotu behar duzu; beraz, bi irudi sobera daude. Entzungaia bi aldiz entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

A



B



C



D



E



F



G



H



Lotu berri bakoitza irudi batekin eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
-----	-----	-----	-----	-----	-----

2. TESTUA

Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan Alberto Arizkorretak **Finlandiari** buruz hitz egingo du. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. Zeri buruz hitz egiten du Alberto Arizkorretak?

- a. Finlandiari buruz
- b. Norvegiari buruz
- c. Neguari buruz

1. Nolako eguraldia dute Finlandian?

- a. Hotza, 10-15 gradutik Ora jaisten da tenperatura.
- b. Tenperaturari dagokionez, neguan daudela esan daiteke.
- c. Egun argitsuak, baina oso tenperatura baxuak.

2. Zergatik dio une polita dela ingurune hori ezagutzeko?

- a. Elurrez gainezka dagoelako.
- b. Udazkena han oso laburra delako.
- c. Paisaia, basoak, batez ere, polit-polit daudelako.

3. Zer ikusi ahal da Rovaniemin?

- a. Santa Clausen museoa.
- b. Samien kultura ezagutu daiteke.
- c. Finlandiako hiri modernoa baino ez da.

4. Non dago kokatuta Rovaniemi?

- a. Benetako Artikoaren barru-barruan dago.
- b. Zirkulu Polar Artikoaren mugen barruan.
- c. Ipar Polotik hurbil.

5. Zer egin daiteke Santa Clausen etxean?

- a. Gabonetan helduko zaizkigun gutunak idatzi.
- b. Neguko parke tematikoaz gozatu.
- c. Santa Clausen historia hobeto ezagutu.

6. Santa Clausen etxean zer iruditu zitzaion “xarmangarria” Alberto Arizkorretari?

- a. Santa Clausekin berarekin minutu batzuk eman ahal izatea.
- b. Santa Claus umez inguratuta ikustea.
- c. Santa Clausek urte asko izatea.

7. Nolakoa izaten da negua Finlandiako iparraldean?

- a. Hiruretan edo lauretan iluntzen du.
- b. Iluntasuna da nagusi.
- c. Eguerdian baino ez dute eguzki argia ikusten.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- a	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

3. TESTUA

Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan Beatriz Ezeizak **aitona-amonei** buruz hitz egingo du. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. Zeri buruz hitz egiten du Beatriz Ezeizak?

- a. Aitona-amonei buruz.
- b. Gaur egungo umeei buruz.
- c. Heziketari buruz.

1. Zer-nolako harremana izaten dute umeei aitona-amonekin?

- a. Normalean, egunero, ondo-ondoan dituzte.
- b. Bigarren gurasotzat hartzen dituzte.
- c. Oso harreman hurbila izaten dute.

2. Zer ikas dezakete umeei aitona-amonengandik?

- a. Harreman afektiboak kanporatzen.
- b. Familiaren jatorriaren berri izan dezakete.
- c. Aitona-amonei zer eskatu diezaieketen ikasten dute.

3. Zer sentitzen dute umeei aitona-amonen istorioak entzutean?

- a. Hobeto ulertzen dute zein den bere lekua familian.
- b. Atsegin dute, batez ere, eskolako istorioak badira.
- c. Aspaldiko istorioak direnez, gustura entzuten dituzte.

4. Zeintzuk istorio kontatzen dituzte aitona-amonek?

- a. Aitona-amonek askotan errepikatzen dituzten istorioak kontatzen dituzte.
- b. Batzuetan gurasoek ezagutzen ez dituzten istorioak kontatzen dituzte.
- c. Seme-alaben gustukoak izaten ez diren istorioak kontatzen dituzte.

5. Zer gertatzen zaie umeei gurasoak ez daudenean?

- a. Aitona-amonek hartu behar dituzte haurrak derrigorrean.
- b. Umeei egun osoa pasatzen dute aitona-amonekin.
- c. Aitona-amonek betetzen dute hutsune afektiboa.

6. Janaria dela eta, zein da egia?

- a. Aitona-amonek prestatutakoa osasungarriagoa izaten da.
- b. Umeei gusturago jaten dute, aitona-amonek nahi duten guztia ematen baitiete.
- c. Beatrizek ez du txarto hartzen bere umeei aitona-amonen janaria gehiago gustatzea.

7. Zer onura ekarri ahal diete umeei aitona-amonei?

- a. Erritmo lasaiagoa eramaten laguntzen diete.
- b. Aitona-amonek seme-alabekin egin ez zutena egiteko aukera dute.
- c. Aitona-amonek biloben heziketaz arduratzeko aukera dute.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- a	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----